



3HI-008/07-P05-A
(GHI-202/06-P05-A)

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN GIPUZKOAKO HIRIGINTZA
PLANGINTZAKO ATALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: maiatzaren 3an Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako atalak egindako 3/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, eta zona libreen eta berdeguneen zonifikazioari eta hirigintza-erabilerari buruzko 133/1996 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeari dagokionez Zizurkilgo udalerriko Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen aldeko txostena egin da.

II.- Kultura-ondarearen arloan:

Santiago Bidea Ondasun Kultural gisa, Monumentu Maltzo kategoriarekin, kalifikatzen duen urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuak Zubimusu zubia babesten du, eta berariazko babes-erregimena ezartzen du zubi horretarako. Hori dela eta, ezin da Zubimusu zubia eraitsi eta bota.

Era berean, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 36. artikulua ezartzen duenez, debekatuta dago ondasun kulturalak edo inbentariatuak eraitea, baldin eta aurretik auri-deklaraziorik ez badago eta Foru Aldundiaren baimen zehatza lortu ez bada. Horrez gain, nahitaez lortu beharko da aurretik desafektazioari dagokion Eusko Jaurlaritzaren baimena.

Horrenbestez, eta Santiago Bidea Ondasun Kultural gisa kalifikatzen duen 14/2000 Dekretuan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean oinarrituta, gaur egun dagoen Zubimusu zubia desagertzearen aurkako txostena egin da.

III. Uren antolamendua eta kultura-ondarearen antolamendua barne hartzea. Ibaiaren ubideratze berria.

Une honetan, Zubimusu zubiaren babesaren inguruan, uren antolamenduaren eta kultura-ondarearen arloan administrazioen arteko kontzertaziorik ez dagoenez gero, espedienteak Zubimusu zubiaren eta zubitik uretan behera dagoen ur-bazterren inguruan egiten duen proposamenaren aurkako txostena egin da. Dena den, administrazio hidraulikoak ubideratze-lanak egin ahal izan ditzan, zubi horretatik uretan gora egiten den proposamenaren aldeko txostena egin da, tarte horretako lanek ez baitute zubiaren babes-erregimenean eraginik. Horrela, uholde-arriskua murriztu ahal izango da esparruan.



EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEA
COMISION DE ORDENACION DEL TERRITORIO DEL PAIS VASCO

IV.- Espedientea behin betiko onartzeko eskumena duen organoari igorriko zaizkio ziurtagiri honi gaineratzen zaizkion Uren Zuzendaritzaren txostena (I. Eranskina) eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena (II. Eranskina).”

Eta horrela jasota gera dadin, Bileraren honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 3an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea.